

Nik, IÑIGO ROLDAN CATALAN jaunak, Oñatiko Udal idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, **Osoko Bilkurak, 2022ko apirilaren 28an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

3.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Europako funtsen kudeaketarako Oñatiko udalaren iruzurraren aurkako plana onartzea, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko apirilaren 12an.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Europako funtsen kudeaketarako Oñatiko udalaren iruzurraren aurkako plana onartzea.

2022ko apirilaren 12an egindako Ogasun batzordean aldeko irizpena jaso zuen ondorengo proposamena, Ogasun Batzordeko idazkaria eta Kontu-hartzailea (Paskual Elustondo Darpon jauna), ziurtatzen duenez.

“3.- Next Generation: Iruzurraren aurkako plana

Kontu-hartzaileak zera dio:

- *Udala Next Generation deritzaien dirulaguntzak eskatzeko izapideak hasi dituela, eta horretarako nahitaezkoa dela Iruzurraren aurkako plan bat izatea.*
- *Plan hau egiteko eredutzat Eudelek proposatutakoa hartu dela eta gero EHUrena eta hainbat udalen ereduak ere begiratu direla.*
- *Planaren egitura zera dela: 8 atal eta bost eranskin*
 - 1.- *Testuingurua*
 - 2.- *Helburua eta aplikazio eremua*
 - 3.- *Iruzur arriskuen balorazioa*
 - 4.- *Iruzurraren aurka borrokatzeko neurriak*
 - 5.- *Iruzurra kontrolatzeko organoa*
 - 6.- *Glosarioa*
 - 7.- *Datu pertsonalen babesa*
 - 8.- *Planaren exekuzioa eta komunikazioa**Eranskinak:*
 - o *1.eranskina: Oñatiko Udalaren adierazpena*
 - o *2.eranskina: Interes gatazkarik eta iruzurraren zein ustelkeriaren prebentzioari buruzko testa*
 - o *3.eranskina: Igea-Interes gatazkarik ezaren adierazpen-eredua*
 - o *4.eranskina: Ikur edo adierazle gorriak iruzurraren aurkako borrokan*
 - o *5.eranskina: Enplegatutako publikoen kode etikoa*
- *Planaren zirriborroa batzordekideei banatzen die.*
- *Plana berria, luzea eta zaila izanik, epe bat beharko dutela batzordekideek aztertzeko.*

- *Proposatzen du ea posible izango litzatekeen apirilaren 26ko Ogasun Batzordeak irizpena ematea, eta apirilaren 28ko OBn erabakitzea.*

Ogasun Batzordeak, aho batez, aldeko irizpena ematen dio Iruzuraren aurkako Planari.”

Ikusita HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Berreskuratze, Eraldaketa eta Egoitza Planaren kudeaketa-sistema konfiguratzeko duena, eta bereziki bere 6. Artikuluak dioena.

Ikusita Iruzuraren aurkako planak udalak izapidetzen dituen espedienteetara aplikagarria dela.

Gaia azterturik, eta Ogasun batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Europako funtsen kudeaketarako Oñatiko udalaren Iruzuraren aurkako plana onartzea, espedientearen emandako idazketarekin.

Bigarrena.- Plan hau udaleko web orriko gardentasun atarian zintzilikatzea.

Hirugarrena.- Plan honek ezartzen dituen neurriak martxan jartzea.

Laugarrena.- Oñati udaleko teknikariei plan honen onarpenaren berri ematea.

Gaia aztertuta, eta Ogasun Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazita geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.

O.E.
ALKATEA

Izaro Elorza Arregui

IDAZKARIA

Iñigo Roldan Catalan



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022ZIES0002-ZIURTAGIRIA/CERTIFICADO (OÑATIKO UDALA)